Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

246

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 22koa, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena. Honen bidez, Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak ematen dituzten baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua emateko baimenik ez duten ikastetxe eta erakundeen arteko koordinazioa ezartzen da.

2008ko ekainaren 10eko Aginduak (uztailaren 9ko EHAA) xedatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko abenduaren 16ko 175/2007 Dekretuan ezartzen diren Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa deituriko prestakuntza-ekintzen funtsezko alderdiak arautzea; nolanahi ere, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretuan xedatzen direnak kontuan hartuta.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen helburua da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko gaitasunak behar bezala lortzen ez dituzten ikasleei oinarrizko eta lanbideko prestakuntza eskaintzea, kalitateko lan-munduratzea eta irakaskuntza arautuetan ikasketak jarraitzeko aukera ahalbidetuko diena; horrela, haien gizarteratzea sustatuko da.

2008ko ekainaren 10eko Aginduaren 6. artikuluak dio Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen eskaintzak bi modalitate har ditzakeela:

a) Nahitaezko eta borondatezko moduluak hartzen dituzten Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak.

b) Nahitaezko moduluak hartzen dituzten Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak emateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimena duten ikastetxeek, a) modalitatea hautatzen badute, borondatezko moduluak eman ahal izango dituzte. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-proposamenak, ordea, titulu hori emateko baimendutako ikastetxeek soilik egin ahal izango dituzte. Egoera hori dela-eta, komeni da koordinazio-hitzarmenak ezartzea bi alde hauen artean: Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak ematen dituzten baina Derrigorrezko Bigarren

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

246

RESOLUCIÓN de 22 de diciembre de 2008, del Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, por la que se establece la coordinación entre los centros públicos de Educación de Personas Adultas y centros y entidades que imparten Programas de Cualificación Profesional Inicial y no están autorizados para la expedición del título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria.

La Orden de 10 de junio de 2008 (BOPV de 9 de julio), regula, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, los aspectos esenciales de las acciones formativas denominadas Programas de Cualificación Profesional Inicial establecidos en el Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación y el RD 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria.

Los Programas de Cualificación Profesional Inicial tienen la finalidad de facilitar al alumnado que no alcance los objetivos de la Educación Secundaria Obligatoria una formación básica y profesional que le permita una inserción laboral de calidad y la oportunidad de proseguir estudios en las enseñanzas regladas, contribuyendo así a su inclusión social.

El artículo 6 de la Orden de 10 de junio de 2008 se refiere a que la oferta de los Programas de Cualificación Profesional Inicial puede adoptar dos modalidades diferentes:

a) Programas de Cualificación Profesional Inicial que incluyen los módulos de carácter obligatorio y voluntario.

b) Programas de Cualificación Profesional Inicial que incluyen los módulos de carácter obligatorio.

Los centros autorizados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para el desarrollo de Programas de Cualificación Profesional Inicial, que opten por la modalidad a), podrán impartir los módulos de carácter voluntario, pero solo realizarán propuestas de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria si se trata de centros autorizados para la expedición de dicho título. Esta circunstancia aconseja establecer acuerdos de coordinación entre los centros públicos de Educación de Personas Adultas y los centros y entidades no autorizadas para la expedición del título de Gradua-

Hezkuntzako graduatu-titulua emateko baimenik ez duten ikastetxe eta erakundeen artean.

Koordinazioa egingo da HHEko ikastetxeko irakasleek Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa egiten ari diren ikasleen ikasketak eta emaitzak jarraitu ahal izateko moduan, bereziki borondatezko moduluak ere egiten ari diren ikasleenak. Horrela, koordinazioaz arduratzen diren HHEko ikastetxeko irakasleek aldez aurretik ezagutuko dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko proba berezira aurkeztuko diren ikasleen ezaugarriak, bai eta HHEko graduen edo arloen ziurtagiria lortzeko aurkezten diren ikasleenak ere.

Horrenbestez,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Ikastetxeen atxikipena.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa ematen duten baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua emateko baimenduta ez dauden ikastetxeak, ebazpen honen ondorioetarako, Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoei atxikita egongo dira, I. eranskinean datorren zerrendaren arabera.

2. artikulua.– Arlo-koordinatzaileak.

HHEko ikastetxeak koordinatzaile bana izendatuko du Komunikazioko, Gizarteko eta Zientzia eta Teknologiako arloetarako. Koordinatzaile horiek ikasleen prestakuntza-prozesua jarraitzeaz eta koordinatzeaz arduratuko dira, bai eta ikasleen ziurtagiria emateaz ere. Horretarako, Hezkuntza sailburuordearen Ebazpenean (Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako 2008-2009 ikasturtearen hasierari buruzkoa) ezartzen denez, koordinatzaileek ordu-kreditu bat izango dute ikastetxean sartu beharreko orduen barnean, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak garatzen dituzten ikastetxeekin eta erakundeekin ezarritako koordinaziotik eratorriko diren beharrak bete ahal izateko.

3. artikulua.– Ikasleen jarraipena.

Ikasleen jarraipena, gutxienez, ikasturtearen hasieran behin, eta ikasturte bakoitzean programatutako ebaluazio-saio bakoitzaren ostean, beste behin, egingo da. HHEko ikastetxeak koordinatzaile izendatutako irakasleak Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programako talde bakoitzaren tutorearekin bilduko dira. Tutore horrek ikasleek egindako jarduerei buruz informatu beharko du funtsean, bai eta gaitasunen lorpen-mailari buruz ere.

4. artikulua.–Hasierako ebaluazioa.

Ikasturtearen hasieran, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa ematen duen ikastetxeko irakasleek hasierako ebaluazioa egingo diete ikasleei. Horretarako,

do de Educación Secundaria Obligatoria que impartan Programas de Cualificación Profesional Inicial.

La coordinación se plantea de manera que el profesorado del centro de EPA realice el seguimiento de los aprendizajes y resultados de las alumnas y de los alumnos que cursen los Programas de Cualificación Profesional Inicial, especialmente de quienes además cursen los módulos voluntarios. De esta manera el profesorado del centro de EPA encargado de la coordinación, dispondrá de un conocimiento previo de las características del alumnado que pueda presentarse a la prueba específica para la obtención del Graduado en Educación Secundaria Obligatoria o a la certificación de los grados y ámbitos en que se ordena la EPA.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.– Adscripción de centros.

Los centros que imparten Programas de Cualificación Profesional Inicial pero que no están autorizados para la expedición del título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria, a los efectos de la presente Resolución, quedan adscritos a los centros públicos de Educación de Personas Adultas según la relación que figura en el anexo I.

Artículo 2.– Coordinadores de ámbito.

El centro de EPA nombrará un coordinador o una coordinadora para cada uno de los ámbitos de Comunicación, Social y Científico-Tecnológico, quien se encargará de realizar las tareas correspondientes a la coordinación y al seguimiento del proceso formativo del alumnado y su certificación. Para ello, tal como establece la Resolución del Viceconsejero de Educación sobre el comienzo del curso 2008-2009 en los centros públicos de Educación de Personas Adultas, las coordinadoras y los coordinadores dispondrán de un crédito horario dentro de las horas de dedicación directa al centro para satisfacer las necesidades derivadas de esta coordinación con los centros y entidades que desarrollan Programas de Cualificación Profesional Inicial.

Artículo 3.– Seguimiento del alumnado.

El seguimiento del alumnado deberá realizarse, como mínimo, una vez al comienzo del curso y tras cada una de las sesiones de evaluación programadas en cada curso. Los profesores y profesoras nombradas coordinadores por parte del centro de EPA, se reunirán con el tutor o la tutora de cada grupo del Programa de Cualificación Profesional Inicial quien deberá informar fundamentalmente sobre las actividades desarrolladas por el alumnado así como del grado de adquisición de las competencias.

Artículo 4.– Evaluación Inicial.

Al comienzo del curso, el profesorado del Centro que imparte el Programa de Cualificación Profesional Inicial realizará una evaluación inicial del alumnado, te-

II. eranskinean jasotakoa eta beharrezkotzat dituzten probak hartuko dituzte kontuan.

Ebaluazioaren emaitzen arabera, Programako irakasleek ikasleak informatuko dituzte, hala badagokio, borondatezko moduluak egin ditzaten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko proba berezira aurkezteko.

5. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko proba berezia.

Borondatezko moduluak egindako ikasleek, LP praktikan garatu aurretik, graduatua lortzeko proba berezi bat egin ahal izango dute, HHEko koordinatzaileek antolatuta. Lortutako emaitzek probak egindako ikasturtearen amaieran izango dituzte ondorio administratiboak.

Ohiz kanpoko egoeran, Programa horien lehen maila amaitzean, ikasleek proba berezi bat egin ahal izango dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa 15 urterekin hasi zuten ikasleek izan ezik.

HHEko ikastetxeko arlo-koordinatzaileek eta irakasleek, proba guztietan ikasleek lortutako emaitzak ebaluatu eta nota jartzeko, ikasleek Programan zehar lortutako emaitzak eta izandako aurrerapena hartuko dituzte kontuan.

6. artikulua.– Jarraipen-probak.

Programa horien lehen mailan, HHEko ikasturtearen eskola-lauhilekoa amaitzearekin batera, eta Programaren bigarren mailan, HHEko ikasturtearen lehen eskola-lauhilekoa amaituta, HHEko arlo-koordinatzaileek eta irakasleek jarraipen-proben bidez ebaluatuko dute ikasleek zenbat aurreratu duten.

Proba horien bidez, ikasleak oinarrizko gaitasunak zer mailatan lortu dituen ikusi ahal izango da, hemen jasotakoari jarraiki: 2008ko urriaren 31ko Aginduan, Helduen Hezkuntzako curriculum espezifikoa ezartzen eta EAEn maila guztietarako indarrean jartzen duena.

HPPIko lehen mailako ikasleei, lehen mailako lehen lauhilekoan egindako jarraipen-probak eginda ere, ezingo zaie inolaz ere eman Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.

7. artikulua.– Proben zuzenketa.

Egingo diren jarraipen-ebaluazioko probak, proba espezifikoak eta horiek zuzentzea Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako koordinatzaileen eta irakasleen ardura dira.

niendo en cuenta lo previsto en el anexo II y las pruebas que considere necesarias.

De acuerdo con los resultados de la evaluación, los profesores y profesoras de estos Programas orientarán al alumnado para, en su caso, cursar los módulos voluntarios y presentarse a la prueba específica para la obtención del título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria.

Artículo 5.– Prueba específica para la obtención del título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria.

El alumnado que haya cursado los módulos voluntarios, antes del desarrollo práctico de la FCT, podrá realizar una prueba específica para la obtención del graduado organizada por los coordinadores y coordinadoras del centro de EPA. Los resultados obtenidos tendrán efectos administrativos al finalizar el curso en que se realizan las pruebas.

Excepcionalmente, al finalizar el primer curso de estos Programas, el alumnado podrá presentarse a una prueba específica para la obtención del título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria, excepto el alumnado que haya comenzado el Programa de Cualificación Profesional Inicial con 15 años.

Los coordinadores de los ámbitos y los profesores y profesoras del centro de EPA, a la hora de evaluar y calificar los resultados que el alumnado obtiene en las diferentes pruebas, tendrán en consideración el progreso y resultados obtenidos por dicho alumnado en el desarrollo de los Programas.

Artículo 6.– Pruebas de seguimiento.

En el primer curso de estos Programas, coincidiendo con la finalización de los cuatrimestres lectivos del curso de la EPA y en el segundo curso del Programa, tras la finalización del primer cuatrimestre lectivo del curso de la EPA, los coordinadores de los ámbitos y los profesores y profesoras del centro de EPA evaluarán el progreso del alumnado mediante pruebas de seguimiento.

Mediante estas pruebas se podrá comprobar el grado de adquisición de las competencias básicas por el alumnado, conforme a lo previsto en la Orden de 31 de octubre de 2008 por la que se establece el currículo específico de la Educación para las personas adultas y se implanta en la CAPV para cada uno de los grados.

En ningún caso se podrá expedir al alumnado del primer curso del PCPI el título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria como resultado de las pruebas de seguimiento realizadas en el primer cuatrimestre del primer curso.

Artículo 7.– Corrección de las pruebas.

Las pruebas de evaluación de seguimiento y específicas que se realicen y su corrección son responsabilidad de los coordinadores y el profesorado de los centros de Educación de Personas Adultas.

8. artikulua.– Aktak.

Ikasleen historia akademikoaren, hasierako ebaluazioko emaitzen eta jarraipen-probetako emaitzen arabera, koordinatzaileek gradu amaierako ebaluazio-aktaren ereduetan idatziz jasoko dituzte gainditutako moduluak eta, hala badagokio, baliozkotutako moduluak. Aktak Helduen Hezkuntzako ikastetxeko idazkaritzan artxibatuko dira ikasturteka eta mailaka sailkatuta.

III. maila gainditzen duen ikaslea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua emateko proposatuko du HHEko ikastetxeak.

9. artikulua.– HLPP ematearekin lotuta dauden ikastetxeen betebeharrak:

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa ematen duen ikastetxeak atxikita dagoen HHEko ikastetxeari hark honi buruz eskatutako informazioa emango dio:

a) HLPP egiten ari diren ikasle guztien historia akademikoa.

b) Programaren hasieran ikasle guztiei egindako hasierako ebaluazioaren emaitzak.

c) HLPPko moduluen ebaluazioen emaitzak.

10. artikulua.– HHEko ikastetxeen betebeharrak:

Koordinazio-bileretan, HHEko ikastetxeak hau egin behar du:

a) Borondatezko moduluen curriculuma Helduen Hezkuntzarako curriculum espezifikoa sortu eta EAEn ezartzen duen Aginduan xedatutako HHEko curriculumera egokituta dagoela egiaztatuko du.

b) HLPPko irakasleei jakinaraziko dizkie ikasleen bilakaeraren jarraipena egiteko proba-ereduak eta graduatu-titulua eskuratzeko proba espezifikoak.

c) Ikasleek gainditutako (edo, hala badagokio, baliozkotutako) arlo, modulu eta mailetan lortutako oinarrizko gaitasun-mailei buruzko informazioa emango die HLPPko irakasleei.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2008-2009 ikasturtean, jarraipen-probak eta proba espezifikoa ikasturtearen amaieran besterik ez dira egingo.

Artículo 8.– Actas.

De acuerdo con el historial académico del alumno o de la alumna, los resultados de la evaluación inicial obtenida y los resultados de las pruebas de seguimiento, los coordinadoras o coordinadoras consignarán en los modelos de acta de evaluación final de grado los módulos aprobados y, en su caso, convalidados. Las actas quedarán archivadas en la secretaría del centro de Educación de Personas Adultas por año académico y grado.

El alumnado que supere el Grado III, será propuesto por el centro de EPA para la expedición del título de Graduado de Educación Secundaria Obligatoria.

Artículo 9.– Obligaciones de los centros relacionados con la impartición del PCPI:

El Centro que imparte el Programa de Cualificación Profesional Inicial facilitará al Centro de EPA al que está adscrito, la información que le solicite referente a:

a) Historial académico de cada uno de los alumnos y alumnas que cursen el PCPI.

b) Resultado de la Evaluación Inicial realizada a cada alumno y alumna al comienzo del programa.

c) Resultados de la evaluación de los módulos del PCPI.

Artículo 10.– Obligaciones de los centros de EPA:

En las reuniones de coordinación, el Centro de EPA:

a) Comprobará que el currículo de los módulos voluntarios está adaptado al currículo de EPA establecido en la Orden por la que se establece el currículo específico de la Educación para las personas adultas y se implanta en la CAPV.

b) Informará al profesorado del PCPI sobre modelos de pruebas de seguimiento del progreso del alumnado y de las específicas para la obtención del título de Graduado.

c) Informará al profesorado del PCPI sobre los niveles de competencias básicas logradas por el alumnado según los ámbitos, módulos y grados superados, o en su caso, convalidados.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Durante el curso 2008-2009, las pruebas de seguimiento y específica, se realizarán exclusivamente al finalizar el curso.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek HLPP emateko baimenduta dauden baina DBHko graduatu-titulua emateko baimenik ez duten titularitate publikoa edo pribatua duten ikastetxeetan bakarrik izango du ondorioa.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 22a.

Lanbide Heziketako eta
Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea,
IÑAKI MUJIKA AIZPURUA.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución tendrá efectos exclusivamente para los centros de titularidad pública o privada autorizados para la impartición de PCPI pero no autorizados para la expedición del título de Graduado en ESO.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 2008.

El Viceconsejero de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente,
IÑAKI MUJIKA AIZPURUA.

I. ERANSKINA

HHI-RI ESLEITUTAKO HLPZ, 2008-2009 IKASTURTEA			
BIZKAIA			
TITULARITATEA	HLPZ	LURRALDEA	ZER HHI-RI ATXIKITUTA
Udalarena	Barakaldo	Bizkaia	Barakaldo
Udalarena	Basauri	Bizkaia	Basauri
Udalarena	Bermeo	Bizkaia	Bermeo
Udalarena	Bilbao	Bizkaia	Iturribide
Udalarena	Durangaldea	Bizkaia	Durango
Udalarena	Erandio	Bizkaia	Leioa
Udalarena	Ermua	Bizkaia	Durango
Udalarena	Gernika	Bizkaia	Gernika-Lumo
Udalarena	Getxo	Bizkaia	Leioa
Udalarena	Lea-Artibai	Bizkaia	Gernika-Lumo
Udalarena	Meatzaldea	Bizkaia	Trapagaran
Udalarena	Mungialdeko Behargintza	Bizkaia	Leioa
Udalarena	Portugalete	Bizkaia	Portugalete
Udalarena	Santurtzi	Bizkaia	Santurtzi
Udalarena	Sestao	Bizkaia	Sestao
GIPUZKOA			
Udalarena	Andoain	Gipuzkoa	Hernani
Udalarena	Bidasoa	Gipuzkoa	Irun
Udalarena	Debagoiena	Gipuzkoa	Arrasate
Udalarena	Donostia	Gipuzkoa	Ignacio Zuloaga
Udalarena	Eibar	Gipuzkoa	Eibar
Udalarena	Errenteria	Gipuzkoa	Errenteria
Udalarena	Goierri	Gipuzkoa	Beasain
Udalarena	Hernani	Gipuzkoa	Hernani
Udalarena	Pasaia	Gipuzkoa	Oarsoaldea
Udalarena	Tolosaldea	Gipuzkoa	Tolosa
Udalarena	Urola Garaia	Gipuzkoa	Zumarraga-Urretxu
Udalarena	Urola Kosta	Gipuzkoa	Zarautz
Udalarena	Usurbil	Gipuzkoa	Lasarte
ARABA			
Partzuergoa	Ignacio Ellacuria HLPZ	Araba	Paulo Freire
Partzuergoa	HLPZ Gasteiz	Araba	Paulo Freire
Udalarena	IES Municipal de Llodio BHI	Araba	Laudio

HHI-RI ESLEITUTAKO HLPZ, 2008-2009 IKASTURTEA			
BIZKAIA			
TITULARITATEA	HLPZ	LURRALDEA	ZER HHI-RI ATXIKITUTA
Erakunde Pribatua	Adsis	Bizkaia	Irala
Erakunde Pribatua	Margotu Elkartea	Bizkaia	Irala
Erakunde Pribatua	Down-en sindromearen Fundazioa	Bizkaia	Iturribide
Erakunde Pribatua	Art. gremioa Gozot. Bizkaiko Gozotegia	Bizkaia	Irala
Erakunde Pribatua	CPES Almi BHIP	Bizkaia	Irala
Erakunde Pribatua	CPES Arce BHIP	Bizkaia	Iturribide
Erakunde Pribatua	CPES Fernando BHIP	Bizkaia	Iturribide
GIPUZKOA			
Erakunde Pribatua	CPEE Ortzadar HBIP	Gipuzkoa	Ignacio Zuloaga
Erakunde Pribatua	CPES CDEA BHIP	Gipuzkoa	Ignacio Zuloaga
Erakunde Pribatua	CPES CEBANC BHIP	Gipuzkoa	Ignacio Zuloaga
Erakunde Pribatua	Fundación Arteaga-Zabalegi Fundazioa	Gipuzkoa	Hernani
ARABA			
Erakunde Pribatua	Bermar Zentroa	Araba	Paulo Freire
Erakunde Pribatua	Cultura Popular Zentroa	Araba	Paulo Freire
Publikoa	IES Hostelería-Ostalaritza BHI	Araba	Paulo Freire

II. ERANSKINA

PERTSONA HELDUEN OINARRIZKO HEZKUNTZA

DBH-KO GRADUATU-TITULUA ESKURATZEKO IKASKETEN EDO PROBEN BALIOKIDETZAK

DBHko 2. ikasturtea	Pertsona Helduen Hezkuntzako III. fasearen 2. modulua	Pertsona Helduentzako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako III. graduaren I. maila
Irakasgaiak	Arloa	Arloa
Gutxienez irakasgai hauetako bi gainditu dituzten ikasleak: Matematikak, Naturaren Zientziak edo Teknologia.	Zientzia eta Teknologia	Zientzia eta Teknologia
Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura, eta Atzerriko Lehen edo Bigarren Hizkuntza gainditu duten ikasleak.	Komunikazioa	Komunikazioa
Gizarte Zientziak eta, hala balegokio, gutxienez irakasgai hauetako bat gainditu duten ikasleak: Plastika eta Ikus Hezkuntza edo Musika.	Gizarte-ezagutza	Lan-arloko prozedura

DBHko 4. ikasturtea	Hasierako lanbide-prestakuntzako programen borondatezko moduluak	Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko proba	Pertsona Helduen Hezkuntzako III. fasearen 4. modulua	Pertsona Helduentzako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako III. graduaren II. maila
Irakasgaiak	Arloa	Arloa	Arloa	Arloa
Gutxienez irakasgai hauetako bi gainditu dituzten ikasleak: Matematikak, Naturaren Zientziak edo Teknologia.	Zientzia eta Teknologia	Zientzia eta Teknologia	Zientzia eta Teknologia	Zientzia eta Teknologia
Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura, eta Atzerriko Lehen edo Bigarren Hizkuntza gainditu duten ikasleak.	Komunikazioa	Komunikazioa	Komunikazioa	Komunikazioa
Gizarte Zientziak eta, hala balegokio, gutxienez irakasgai hauetako bat gainditu duten ikasleak: Plastika eta Ikus Hezkuntza edo Musika.	Lan-arloko prozedura	Gizarte-ezagutza	Gizarte-ezagutza	Lan-arloko prozedura

ANEXO I

ASIGNACIÓN DE CCPI A CEPA CURSO 2008-2009			
BIZKAIA			
TITULARIDAD	*CCPI*	*TERRITORIO*	*CEPA ADSCRITO*
Municipal	*Barakaldo*	*Bizkaia*	*Barakaldo*
Municipal	*Basauri*	*Bizkaia*	*Basauri*
Municipal	*Bermeo*	*Bizkaia*	*Bermeo*
Municipal	*Bilbao*	*Bizkaia*	*Iturribide*
Municipal	*Durangaldea*	*Bizkaia*	*Durango*
Municipal	*Erandio*	*Bizkaia*	*Leioa*
Municipal	*Ermua*	*Bizkaia*	*Durango*
Municipal	*Gernika*	*Bizkaia*	*Gernika-Lumo*
Municipal	*Getxo*	*Bizkaia*	*Leioa*
Municipal	*Lea-Artibai*	*Bizkaia*	*Gernika-Lumo*
Municipal	*Meatzaldea*	*Bizkaia*	*Valle de Trápaga*
Municipal	*Mungialdeko Behargintza*	*Bizkaia*	*Leioa*
Municipal	*Portugalete*	*Bizkaia*	*Portugalete*
Municipal	*Santurtzi*	*Bizkaia*	*Santurtzi*
Municipal	*Sestao*	*Bizkaia*	*Sestao*
GIPUZKOA			
Municipal	*Andoain*	*Gipuzkoa*	*Hernani*
Municipal	*Bidasoa*	*Gipuzkoa*	*Irun*
Municipal	*Debagoiena*	*Gipuzkoa*	*Arrasate*
Municipal	*Donosti*	*Gipuzkoa*	*Ignacio Zuloaga*
Municipal	*Eibar*	*Gipuzkoa*	*Eibar*
Municipal	*Errenteria*	*Gipuzkoa*	*Errenteria*
Municipal	*Goierri*	*Gipuzkoa*	*Beasain*
Municipal	*Hernani*	*Gipuzkoa*	*Hernani*
Municipal	*Pasaia*	*Gipuzkoa*	*Oarsoaldea*
Municipal	*Tolosaldea*	*Gipuzkoa*	*Tolosa*
Municipal	*Urola Garaia*	*Gipuzkoa*	*Zumarraga-Urretxu*
Municipal	*Urola Kosta*	*Gipuzkoa*	*Zarautz*
Municipal	*Usurbil*	*Gipuzkoa*	*Lasarte*
ÁLAVA			
Consorcio	*CCPI Ignacio Ellacuria*	*Álava*	*Paulo Freire*
Consorcio	*CCPI Vitoria-Gasteiz*	*Álava*	*Paulo Freire*
Municipal	*IES Municipal de Llodio BHI*	*Álava*	*Llodio*

ASIGNACIÓN DE CCPI A CEPA CURSO 2008-2009			
BIZKAIA			
TITULARIDAD	*CCPI*	*TERRITORIO*	*CEPA ADSCRITO*
Entidad Privada	*Adsis*	*Bizkaia*	*Irala*
Entidad Privada	*Asociación Margotu*	*Bizkaia*	*Irala*
Entidad Privada	*Fundación Síndrome de Down*	*Bizkaia*	*Iturribide*
Entidad Privada	*Gremio de Art. Confit. Pastelería de Bizkaia*	*Bizkaia*	*Irala*
Entidad Privada	*CPES Almi BHIP*	*Bizkaia*	*Irala*
Entidad Privada	*CPES Arce BHIP*	*Bizkaia*	*Iturribide*
Entidad Privada	*CPES Fernando BHIP*	*Bizkaia*	*Iturribide*
GIPUZKOA			
Entidad Privada	*CPEE Ortzadar HBIP*	*Gipuzkoa*	*Ignacio Zuloaga*
Entidad Privada	*CPES CDEA BHIP*	*Gipuzkoa*	*Ignacio Zuloaga*
Entidad Privada	*CPES CEBANC BHIP*	*Gipuzkoa*	*Ignacio Zuloaga*
Entidad Privada	*Fundación Arteaga-Zabalegi Fundazioa*	*Gipuzkoa*	*Hernani*
ÁLAVA			
Entidad Privada	*Centro Bermar Ik*	*Álava*	*Paulo Freire*
Entidad Privada	*Centro de Cultura Popular*	*Álava*	*Paulo Freire*
Público	*IES Hostelería-Ostalaritza BHI*	*Álava*	*Paulo Freire*

ANEXO II

EDUCACIÓN BÁSICA PARA PERSONAS ADULTAS

EQUIVALENCIAS EN ENSEÑANZAS O PRUEBAS PARA LA OBTENCIÓN DEL TÍTULO DE GRADUADO EN ESO

2.º curso de ESO	*Módulo 2 de la Fase III de educación de personas adultas (Orden de 29 de mayo de 1998)*	*Grado III Nivel I de Educación Secundaria Obligatoria para Personas Adultas*
Materias	*Ámbito*	*Ámbito*
Alumnos y alumnas que han superado al menos dos de las siguientes materias: Matemáticas, Ciencias de la Naturaleza o Tecnología.	*Científico-tecnológico*	*Científico-tecnológico*
Alumnos y alumnas que han superado las materias de Lengua Castellana y Literatura, Lengua Vasca y Literatura y Primera o Segunda Lengua Extranjera.	*Comunicación*	*Comunicación*
Alumnos y alumnas que han superado las Ciencias Sociales y, en su caso, al menos una de las dos materias siguientes: Educación Plástica y Visual o Música	*Conocimiento Social*	*Social*

4.º curso de ESO	*Módulos voluntarios en programas de cualificación profesional inicial*	*Prueba para la obtención del Título de Graduado en Educación Secundaria*	*Módulo 4 de la Fase III de educación de personas adultas (Orden de 29 de mayo de 1998)*	*Grado III Nivel II de Educación Secundaria Obligatoria para Personas Adultas*
Materias	*Ámbito*	*Ámbito*	*Ámbito*	*Ámbito*
Alumnos y alumnas que han superado al menos dos de las siguientes materias: Matemáticas, Ciencias de la Naturaleza o Tecnología.	*Científico-tecnológico*	*Científico-tecnológico*	*Científico-tecnológico*	*Científico-tecnológico*
Alumnos y alumnas que han superado las materias de Lengua Castellana y Literatura, Lengua Vasca y Literatura y Primera o Segunda Lengua Extranjera.	*Comunicación*	*Comunicación*	*Comunicación*	*Comunicación*
Alumnos y alumnas que han superado las Ciencias Sociales y, en su caso, al menos una de las dos materias siguientes: Educación Plástica y Visual o Música	*Social*	*Conocimiento Social*	*Conocimiento Social*	*Social*